



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2021eko ABENDUAREN 22an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2021eko abenduaren 22an, arratsaldeko 20.00etan, Jose Ramon Ayerza Sarasua funtzioetan dagoen Alkatearen Lehendakartzapean (abenduaren 20ko 2021/308 Alkatetza Dekretuaren bidez, alkate andrearen ordezkapena ebatzi da), behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA FUNTZIOETAN: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK:

- Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
- Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB)
- Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
- Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
- Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB)
- Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza. Idazkaria bideokonferentzia bidez bertaratu da saiora, COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baititu atzotik, gaur egindako PCRaren emaitzaren zain, eta bere etxean isolatuta dago Osakidetzaren protokoloa betez. Idazkariak bilkuraren lekua eta partaideak errekonozitu ditu, eta bertaratutako guztien arteko komunikazioa zuzena dela berretsi du.

Alkatea funtzioetan, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDIA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- 2021.10.26ko Udalbatzarraren akta.
- 2021.11.04ko Udalbatzarraren akta.
- 2021.11.22ko Udalbatzarraren akta.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2021.urtekoak (260-307)

3. 2022ko Udal aurrekontu Orokorrak: hasierako onespena

4. H.E.A. A-7 Lamiategi Plan Partzialaren Aldaketa Puntuala: behin-behineko onespena

5. Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauak indargabetzea: hasierako onespena

6. Hitzarmenak:

- 2021/05: Eszenatoki mugikorraren erabilera

7. Mozioak:

- 2021/08: Jaso nahiko genukeena eskaintzea
- 2021/09: Euskararen nazioarteko eguna
- 2021/10: Haurren aurkako sexu abusua prebenitzeko mundu eguna
- 2021/11: Euskal presoek eskubideak errespetatu

8. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- 2021.10.26ko Udalbatzarraren akta.
- 2021.11.04ko Udalbatzarraren akta.
- 2021.11.22ko Udalbatzarraren akta.

Alkatea funtzioetan hitza hartu du. 2021.06.21eko aktan akatsa dagoela adierazi du, ondorengoa hain zuzen ere:

Hirugarren puntuaren izenburuan, "Propuesta de acuerdo plenario para la creación..." jaso da; akatsa zuzendu ondoren, "Propuesta de acuerdo plenario para la creación..." jaso behar da.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenearekin, aipatu aktak onartu ditu.

BIGARREN PUNTUA

Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2021.urtekoak (260-307)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

2022ko Udal aurrekontu Orokorrak: hasierako onspena

2021/10/16an Udaleko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zen Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio-Batzordean.

2021/11/26 eta 2021/11/30ean aurkeztutako idatzien bidez, ASTEASU BATUZ Udal taldeak eta EAJ-PNV Udal Taldeak, hurrenez hurren, 2022ko udal aurrekontuetarako proposamenak aurkeztu zituzten; horiek 2021/11/30eko Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio-Batzordean aztertu ziren.

Bi Udal taldeek eginiko proposamenak eztabaidatu ondoren, 2022ko Udal aurrekontuaren proiektua egin da.

Proiektu horretan, Gipuzkoako Finantza Kontseiluko datuen arabera, Udal-finantzaketarako foru-funtsaren 2021eko likidazio-aurreikuspenaren 116.064 euroko kopurua txertatu da sarrera moduan.

Bitarteko Idazkariak aurretik "in voce" txostena eman du.

2022ko Udal Aurrekontu Orokorren proiektuarekin batera, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda, eta Asteasuko Udaleko 2021-2023 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa izapidetuko dira.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Udaleko Bitarteko Idazkariak lege-eragozpena eman du.

Alkatea funtzionetan hitza hartu du. Idazkariak eginiko lege-eragozpenari dagokionez, aurrera egiteko proposamena egin du, izan ere, hurrengo ekitaldian Udalaguntza 2021 programan eskatutako diru-laguntza lortuz gero (eta ez ordea IDAEri eskatutakoa) EJ aurreko zuriketa betetzeko egin behar diren izapideak diru-zaintza gerakina sortu aurretik hasi beharko direla, eta ezin izango dela martxoaren amaieraraino itxaron.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKIA HARTU DU

Lehena. 2022ko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda, eta Asteasuko Udaleko 2021-2023 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa hasierako izaeraz onartzea.

Bigarrena. Iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian, eta iragarki taulan, jendaurrera azaltzeko hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

LAUGARREN PUNTUA

H.E.A. A-7 Lamiategi Plan Partzialaren Aldaketa Puntuala: behin-behineko onespina

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendari Nagusiaren 2013ko maiatzaren 16ko Foru Aginduaren bidez, behin betikoz onartu zen Asteasuko Lamiategi A-7 Hirigintzako Esku Hartze Areako Plan Partziala	Mediante Orden Foral de 16 de mayo de 2013, del Director General de Ordenación Territorial de Diputación Foral de Gipuzkoa se aprobó definitivamente el «Plan Parcial del Área Urbanística A.I.U. A-7 (Lamiategi)» del municipio de
--	---



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

(2013/06/20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Une honetan, Asteasuko Udalak aipatutako Plan Partziala aldatu nahi du.

Proposatutako aldaketen irismen eskasak dagokion Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren espedientea merezi ez duela ulertuta, gai hori ingurumen organoari aurkeztu zaio, iritzia eman dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusiak, 2021/06/18ko idazkian, honako hau jakinarazi du:

“Bidalitako dokumentazioa ikusi eta gero, eta ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera, aurre ikusten da planteatutako proposamenean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko 21/2013 Legeko 6.1 eta 6.2 artikuluetan jasotako betekizun edo baldintzetako bat ere ez duela betetzen aldaketak, ez eta 211/2012 Dekretuan jasotakoak ere, eta ondorio horiek ez direla sortuko ere 21/2013 Legeko V. Eranskinean ezarritako ebaluatzeko irizpideak kontuan hartu eta aplikatu eta gero. Beraz, ulertzen da A-7 HJ Eren (Lamiategi) plan partzialaren aldaketak aipatutako arauetan ezarritako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bat ere ez zuela jarraitu beharko”.

Asteasu (Boletín Oficial de Gipuzkoa 20/06/2013).

En estos momentos, interesa al Ayuntamiento de Asteasu modificar el citado Plan Parcial.

Entendiendo que el escaso alcance de las modificaciones que se proponen no hace acreedor al expediente de la correspondiente Evaluación Ambiental Estratégica, se ha sometido esta cuestión a la consideración del órgano ambiental, para que manifieste su opinión al respecto.

La Directora General de Medio Ambiente de Diputación Foral de Gipuzkoa, en escrito de 18/06/2021, ha tenido a bien comunicar lo siguiente:

“Tras el análisis de la documentación aportada, y de acuerdo con lo establecido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y en el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, se entiende que en la propuesta planteada no se daría ninguno de los requisitos o supuestos establecidos en los artículos 6.1 y 6.2 de la Ley 21/2013 ni en los establecidos en el Decreto 211/2012 que implican que la modificación puede tener efectos significativos sobre el medio ambiente, ni que puedan producirse esos efectos tras la consideración y aplicación de los criterios de evaluación establecidos en el Anexo V de la Ley 21/2013; por lo que la modificación del Plan Parcial del AIU A-7 (Lamiategi) no estaría sometida a ninguno de los procedimientos de

evaluación ambiental estratégica regulados en ambas normas”.

Uztailaren 8ko 2021/183 Alkatetza Dekretuaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion Asteasuko A-7 "Lamiategi" HIEren Plan Partzialaren Aldaketa Puntualari, "C" lurzatiaren lerrokadurei eta lurzatiaren barruan patioak izateari buruzkoa, Soroa Arquitectos SLPk 2021eko uztailan idatzia.

Asteasuko Udala da Plan Partzialaren aldaketaren sustatzailea.

Espedientea jende aurrean jarri da, eta alegazio hau aurkeztu da:

- ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS, S.L.P. enpresaren izenean Jesus Maria Iriondo Emparanza jaunak 2021/09/09an aurkeztutako alegazioa (555 zenbakiko sarrera).

Eragindako Administrazio sektorialek txostenak eman dituzte.

Emandako txosten sektorialetan jasotako edukiaren eta aurkeztutako alegazioaren ondorioz, Asteasuko Udalak dokumentu hau egin du: Asteasuko A-7 "Lamiategi" H.E.A.ren Plan Partzialaren Aldaketa Puntualari, "C" lurzatiaren lerrokadurei eta lurzatiaren barruan patioak izateari buruzkoa, Soroa Arquitectos SLPk 2021eko azaroan idatzia.

Dokumentu honen edukitik, besteak beste, honako termino hauek ondorioztatzen dira aurkeztutako alegazioari dagokionez:

Mediante Decreto de Alcaldía 2021/183, de 8 de julio, se aprobó inicialmente la Modificación Puntual del Plan Parcial del A.I.U. A-7 "Lamiategi" de Asteasu, relativo a las alineaciones de la parcela "C" y a la disposición de patios en el interior de la parcela, redactado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en julio de 2021

El promotor de la modificación del Plan Parcial es el Ayuntamiento de Asteasu.

El expediente se ha sometido a información pública, habiéndose presentado la siguiente alegación:

- 09/09/2021 (entrada nº 555), presentada por D. Jesus Maria Iriondo Emparanza, en representación de ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS, S.L.P.

Se han emitido informes por las Administraciones sectoriales afectadas.

Como resultado del contenido de la alegación presentada, y de los informes sectoriales emitidos, el Ayuntamiento de Asteasu ha formulado la Modificación Puntual del Plan Parcial del A.I.U. A-7 "Lamiategi" de Asteasu, relativo a las alineaciones de la parcela "C" y a la disposición de patios en el interior de la parcela, redactado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en noviembre de 2021.

Del contenido de este documento se desprenden, entre otros, los siguientes términos en relación con la alegación presentada:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Aurkeztutako alegazioaren lehenengo zatiari dagokionez, beheko solairuko gehieneko azalera eraikigarria zehaztaperen xehatua dela. Beraz, zehaztaperen xehatu hori Plan Partzialaren aldaketa honetan berrikus daiteke.
- Aurkeztutako alegazioaren bigarren zatiari dagokionez, sestra azpiko eraikigarritasuna zehaztea egiturazko zehaztapena da, eta, beraz, ezin da ulertu Plan Partzialaren aldaketaren baitan zuzendu daitekeen errore moduan.
- En cuanto a la primera parte de la alegación presentada, que la superficie máxima edificable en planta baja es una determinación de carácter pormenorizado. Por lo tanto, dicha determinación de carácter pormenorizado puede ser revisada en la presente modificación del Plan Parcial.
- En cuanto a la segunda parte de la alegación presentada, que la determinación de la edificabilidad bajo rasante es una determinación de carácter estructural, por lo que no puede ser considerada como un error subsanable desde la modificación del Plan Parcial.

Udaleko Arkitekto aholkulariak 2021/11/26an txostena eman du, behin-behineko onespeneraren aldekoa.

El Arquitecto asesor municipal ha emitido informe de fecha 26/11/2021, en sentido favorable a su aprobación provisional.

Udaleko Bitarteko Idazkari Kontu hartzaileak 2021/09/30eko txosten-proposamena eman du; horretan ondorioztatu daiteke behin-behineko onespenerako aurkeztutako dokumentuan egindako aldaketak ez direla funtsezkoak.

El Secretario Interventor Interino municipal ha emitido informe-propuesta de fecha 30/11/2021; del mismo se desprende que las modificaciones efectuadas en el documento presentado para su aprobación provisional no son sustanciales.

Ikusirik emandako txostenak.

A la vista de los informes emitidos.

Ekainaren 30eko Lurzorua eta Hirigintzaren 2/2006 Legean, eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenen jasotakoarekin bat.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, y en el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

Apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2.c) de la Ley 7/1985, de 4 de

Legearen 22.2.c) artikuluan abril, reguladora de las Bases de jasotakoarekin bat. Régimen Local.

Hirigintza eta Obretako Informazio Previo dictamen de la Comisión Batzordeak aurretik irizpena eman du. Informativa de Urbanismo y Obras.

Proposamena bozketara jarri da, La propuesta se somete a votación con el ondorengo emaitza eman delarik: siguiente resultado:

Aldeko botuak: 7 (Ayerza, Alkorta, Votos a favor: 7 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga Gómez) Gómez)
Kontrako botuak: 0 Votos en contra: 0
Abstentzioak: 0 Abstenciones: 0

Gauzak horrela, Udalbatzarrak Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento

ERABAKIA HARTU DU

HA ACORDADO

LEHENA. PARTZIALKI ONESTEA PRIMERO. ESTIMAR PARCIALMENTE ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS, la alegación presentada el 09/09/2021 S.L.P. enpresaren izenean Jesus Maria (entrada nº 555) por D. Jesus Maria Iriondo Emparanza jaunak 2021/09/09an Iriondo Emparanza, en representación de aurkeztutako alegazioa (555 zenbakiko ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS, sarrera). S.L.P.

Ondorioz, ONESTEA alegazioaren En consecuencia, ESTIMAR el contenido lehenengo paragrafoan jasotako edukia. incluido en el párrafo primero de la alegación.

Beraz, honako hau izango da "8. Fitxa Resultando, por lo tanto, que el apartado partikularra, "C" partzelarena, Aldatuta", "8.- Ficha particular de la parcela "C" – ERAIKINEN OKUPAZIOA, OCUPACIÓN GEHIENEZKOA: EDIFICATORIA MÁXIMA, será el siguiente:

- Erdisotoko gehieneko azalera eraikigarria: 1.364 m²
- Beheko solairuko gehieneko azalera eraikigarria: 810 m²
- Beheko solairuko sestra gaineko sabai eraikigarriaren gehieneko azalera, hegalkinak barne: 2.893 m² t.e.
- Superficie máxima edificable en semisótano: 1.364 m²
- Superficie máxima edificable en planta baja: 810 m²
- Superficie máxima total de techo edificable sobre rasante de planta baja, incluidos vuelos: 2.893 m² t.e.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eta EZ ONESTEA aurkeztutako alegazioan jasotako gainerako edukia.

Hori guztia erabaki honen azalpen-zatian azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA. Behin-behineko onespena ematea Asteasuko A-7 "Lamiategi" H.E.A.ren Plan Partzialaren Aldaketa Puntualari, "C" lurzatiaren lerrokadurei eta lurzatiaren barruan patioak izateari buruzkoa, Soroa Arquitectos SLPk 2021eko azaroan idatzia.

Era berean, behin-behineko onespena ematen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 2021/06/18ko jakinarazpenaren edukia, aurreko paragrafoan onartutako plangintzari gehitzen zaiona.

HIRUGARRENA. Behin-behineko onespeneren erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, gehienez ere hamar eguneko epean, behin betiko onspena eman diezaion.

Y DESESTIMAR el restante contenido incluido en la alegación presentada.

Todo ello por los motivos expuestos en la parte expositiva del presente acuerdo.

SEGUNDO. Aprobar provisionalmente la Modificación Puntual del Plan Parcial del A.I.U. A-7 "Lamiategi" de Asteasu, relativo a las alineaciones de la parcela "C" y a la disposición de patios en el interior de la parcela, redactado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en noviembre de 2021.

Así mismo, se aprueba provisionalmente el contenido de la comunicación de 18/06/2021 de la Directora General de Medio Ambiente de Diputación Foral de Gipuzkoa, que se incorpora al planeamiento aprobado en el párrafo anterior.

TERCERO. Remitir el presente acuerdo de aprobación provisional, en un plazo no superior a diez días desde su adopción, a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

BOSGARREN PUNTUA

Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauak indargabetzea: hasierako onespina

2011/15/11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauak.

El 26/05/2011 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa las Normas de gestión sobre concesión de subvenciones para el pago de tasas de suministro de agua.

Udalari interesatzen zaio arau horiek indargabetzea, adierazitako diru-laguntzak emateko egungo sistema ordezkatzeko, indarrean dagoen araudira egokitzeko eta, era berean, kalkulu ekonomikoak berrikusteko.

Interesa al Ayuntamiento derogar las citadas normas, al objeto de sustituir el actual sistema de otorgamiento de subvenciones citado, para adaptarlo a la normativa vigente y, así mismo, revisar los cálculos económicos.

Indargabetze hori Asteasuko Udalaren ordenantza fiskalen aldaketara egokitzen da (gaur egun izapidetzen ari da, eta zaborren kudeaketa-tasaren gaineko hobariak indargabetzea aurreikusten du), hori guztia bi kontzeptuetarako udal-diru-laguntzak ematea barne hartuko duen udal-arau berri bat onartzeko izapideak hasteko helburuarekin.

Esta derogación se adapta a la modificación de las ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Asteasu (actualmente en tramitación), y que prevé la derogación de las bonificaciones sobre la tasa de gestión de basuras, todo ello con el objetivo de iniciar los trámites de aprobación de una nueva norma municipal que integre el otorgamiento de subvenciones municipales para ambos conceptos.

Udaleko Gizarte Langileak 2021/12/13an txostena eman du.

La trabajadora social municipal ha emitido informe de fecha 13/12/2021.

Asteasuko Udaleko Bitarteko Idazkari Kontu hartzaileak aurretik txosten-proposamena eman du.

Previo informe-propuesta emitido por el Secretario Interventor Interino del Ayuntamiento.

Ikusirik emandako txostenak.

A la vista de los informes emitidos.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko

Esta Ordenanza se dictará en virtud de la competencia atribuida al Municipio en materia urbanística por la Ley 7/85, de 2



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 17ko Diru-Laguntza Orokorraren 38/2003 Legeak emandako eskumenaren arabera emango da ordenantza hau.

Aurretiazko kontsulta-entzualdi publikoa egin da, Administrazioaren web atariaren bidez.

Gizarte Zerbitzuak, Enplegua eta Hirugarren Mundua Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan jasotakoarekin bat.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga, Gómez)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzarrak

ERABAKIA HARTU DU

LEHENA. Hasierako onespena ematea Asteasuko Udaleko Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauaren Indargabetzeari, I. eranskinetara.

BIGARRENA. Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzualdia ematea 30 egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, honako erabaki

de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, por la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, así como por la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Previamente, se ha sustanciado una consulta-audiencia pública previa, a través del portal web de la Administración.

Previo dictamen de la Comisión Informativa de Servicios Sociales, Empleo y Tercer Mundo.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2.d) de la Ley 7/1985, de 4 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:

Votos a favor: 7 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga Gómez)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento

HA ACORDADO

PRIMERO. Aprobar inicialmente la Derogación de las Normas de gestión sobre concesión de subvenciones para el pago de tasa por suministro de agua del Ayuntamiento de Asteasu, del Anexo I.

SEGUNDO. Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días para la presentación de reclamaciones y

hau Udalaren web orrian, iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

HIRUGARRENA. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikoz onetsizat joko da Asteasuko Udaleko Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauaren Indargabetzea; Alkate-Presidente andreari eskumena espresuki eman zaio, kasu horretan, argitaratu eta gauzatzeko.

I. ERANSKINA

2011/15/11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauak.

Udalari interesatzen zaio arau horiek indargabetzea, adierazitako diru-laguntzak emateko egungo sistema ordezkatzeko, indarrean dagoen araudira egokitzeko eta, era berean, kalkulu ekonomikoak berrikusteko.

Indargabetze hori Asteasuko Udalaren ordenantza fiskalen aldaketara egokitzen da (gaur egun izapidetzen ari da, eta zaborren kudeaketa-tasaren gaineko hobariak indargabetzea aurreikusten du), hori guztia bi kontzeptuetarako udal-diru-laguntzak ematea barne hartuko duen udal-arau berri bat onartzeko izapideak hasteko helburuarekin.

sugerencias, mediante publicación de este acuerdo en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

TERCERO. En el supuesto de que no se presentaran reclamaciones, la Derogación de las Normas de gestión sobre concesión de subvenciones para el pago de tasa por suministro de agua del Ayuntamiento de Asteasu se entenderá que queda aprobada definitivamente, quedando facultado expresamente la Alcaldesa-Presidenta para su publicación y ejecución.

ANEXO I

El 26/05/2011 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa las Normas de gestión sobre concesión de subvenciones para el pago de tasas de suministro de agua.

Interesa al Ayuntamiento derogar las citadas normas, al objeto de sustituir el actual sistema de otorgamiento de subvenciones citado, para adaptarlo a la normativa vigente y, así mismo, revisar los cálculos económicos.

Esta derogación se adapta a la modificación de las ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Asteasu (actualmente en tramitación), y que prevé la derogación de las bonificaciones sobre la tasa de gestión de basuras, todo ello con el objetivo de iniciar los trámites de aprobación de una nueva norma municipal que integre el otorgamiento de subvenciones municipales para ambos conceptos.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauak.	Normas de gestión sobre concesión de subvenciones para el pago de tasas de suministro de agua.
Xedapen indargabetzaile bakarria	Disposición derogatoria única
Berariaz indargabetuta geratzen dira Ur-hornidura ordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa arauak.	Quedan derogadas expresamente las Normas de gestión sobre concesión de subvenciones para el pago de tasas de suministro de agua.
Azken xedapen bakarria.	Disposición final única.
Xedapen indargabetzaile bakar hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.	La presente Disposición derogatoria única entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

SEIGARREN PUNTUA

Hitzarmenak:

- **2021/05: Eszenatoki mugikorraren erabilera**

2002an Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntza.

Aipatu udalerriek eszenatoki mugikor bat erosteko eta bera kudeatzeko hitzarmen bat sinatu zuten baina bidean hainbat zalantza sortu dira, batik bat hitzarmen hartan jaso ziren klausula batzuk betetzea ezinezkoa gertatu delako. Honen ondorioz, lau udalerriko alkateok bildu gera Hitzarmenaren atal batzuk berritzeko asmoz.

Hauek dira ezaugarri nagusiak:

- Eszenatokiak berrikuntza batzuk izan ditu, ezaugarriak aldatu gabe (egurrak eta toloa berritzea) eta lau udalen artean ordaindu ziren.
- Eszenatokiaren berrikuntzaren aurrekontua 23.982,23 eurotako izan zen, eta ordainketa udal bakoitzak modu honetan bideratu zuen, eta aurrerantzean ere honela egingo da: Kostu osoaren %50 a Udal guztiek berdin ordaindu beharko lukete. Beste %50 a biztanleagoaren arabera (udal guztien biztanleriak %100 a

osatzen bada, Udal bakoitzak dituen biztanleen proportzioan). Kalkulu hau bera erabiliko da eszenatokiaren mantentzeak, ezbeharrak (lapurreta, puskatzea) ea... sorrarazitako gastu bereziak ordaintzeko orduan. Bestalde, berdin banatuko da , inolako diru-sarrerarik sortzen bada edota diru-laguntzarik jasotzen bada.

- Asteasuko Udalaren esku geldituko da eszenatokiaren biltokia, berak baitu horretarako leku egokia.
- Kudeaketaren ardura Asteasuko Udalak hartzen du
- Erabiltzaile bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu, eszenatokiaren gastu arruntetarako, Asteasuko Udalak ezik, kudeaketaren gain egiten delako.
- Erabilpena printzipioz, jabe diren herriek soilik eramango dute. Beste udalek eszenatokia eskatzen badute, jabe diren udaletako arduradun guztien onespena lortu beharko dute. Udala ez diren beste entitate batek eskatuko balu, beti bere herriko udalaren izenean egin beharko du eskaera idatziz.
- Muntaia eta desmuntaia honela egingo da : herri bakoitzak bere brigadako langile bat izendatuko du. Horrela 4 pertsonako talde bat osatuko da eta horiek izango dira lan horien arduradunak eta eszenatokia behar denero lau herri horietara joango dira.
- Jabe ez diren beste udalei eszenatokia uztea onesten bada, 300 euroko tasa ordaindu beharko dute, eta erabilpen egokia bermatzearen, 300 euroko fidantza jarri beharko dute, eraman aurretik.
- Eszenatokia ez bada modu egokian jasota bueltatzen, Asteasuko udalak fidantza erabiliko du, bere brigadak hura ondo jartzen pasatzen dituzten orduak estaltzeko.
- Urte amaieran eszenatokiaren erabilieragatik jasotzen diren tasen kopuruaren %25 a Asteasuko udalari emango zaio, kudeaketa lanen ordainketa gisa.
- Printzipioz herri bakoitzeko festa eta aste kulturalak errespetatu beharko lirateke bere erabilpenari dagokionez.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Bitarteko Idazkariak aurretik "in voce" txostena eman du, hain zuzen ere, aipatutako Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordean eginikoa; adierazpen hauek egin ditu:

- Ez da behar bezala deskribatu instalakuntza, ezta bere gaur egungo egoera.
- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legean eta hori garatzen duen Dekretuan jasotakoarekin bat, eta instalakuntza horren ezaugarrien arabera, aldi bateko instalazio ez-iraunkorrek egokiak, seguruak eta sendoak direla eta ongi muntatuta daudela egiaztatzeko dokumentazio teknikoa izan behar dute; aurretik, hori muntatzeko jarraibideak izan behar dituzte. Hitzarmenak ez du horretaz ezer jaso.
- Instalakuntza horiek ere erabiltzaileak kontratatutako erantzunkizun zibileko polizak izan behar dituzte, eta hitzarmenak ez du horretaz ezer jaso.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Araubide ekonomikoaren azterketa egin gabe dago; hala, ezin da bermatu Asteasuko Udalak nahiko sarrerek izango dituen beste udalek edota erakundeek instalakuntza erabiltzeagatik eskatuko dituzten lan-orduak estaltzeko, bai hori eraman-ekartzeko, bai horretan egin behar diren konponketak egiteko.
- Hitzarmena 2019/15 Legearen araubideari egokitu behar zaio, besteak beste, instalakuntzaren erabileraren jarraipena egiteko.

Gauzak horrela, kontrako txostena egin dio proposamenari.

Alkatea funtzioetan hitza hartu du. Esan du jatorrizko hitzarmenak 19 urte dituela, eta oraingo dokumentua ez dela araubide berriari egokitzeko azterketa egin. Hitzarmen hori beste hiru Udaleko Udalbatzarretan proposatu den moduan onartu da, eta ezin da atzera egin. Dena den, Idazkariak eginiko adierazpenak jasotzat eman ditu, eta proposatu du dagoen moduan onartzea, eta 2022 urtean dagokion azterketa egitea hori moldatzeko.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKIA HARTU DU

Lehena. Onestea 2002an Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntza, I. eranskinekoa.

Bigarrena. Alkate andreari baimena ematea hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena. 2022 urtean hitzarmena aztertu egingo da.

I. ERANSKINA

2002an ADUNA, ALKIZA, ASTEASU ETA LARRAULGO HERRIEN ARTEAN EROSI ZEN ESZENATOKI MUGIKORRAREN ERABILPENA KUDEATZEKO HITZARMENAREN BERRIKUNTZA

Asteasu, 2021 ekoaren..... a

Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo udal ordezkariak ahalmen osoa aitortzen diote elkarri zuzenbidearen arabera hitzarmen hau sinatzeko.

AZALPENA

1.- Aipatu udalerriek eszenatoki mugikor bat erosteko eta bera kudeatzeko hitzarmen bat sinatu zuten baina bidean hainbat zalantza sortu dira, batik bat hitzarmen hartan jaso ziren klausula batzuk betetzea ezinezkoa gertatu delako. Honen ondorioz, lau udalerriko alkateok bildu gera Hitzarmenaren atal batzuk berritzeko asmoz.

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua da goian adierazitako Udalen artean 2002 an erosi zen eszenatoki mugikorraren erabileraren kudeaketa arauak berri eta eguneratzea.

BIGARRENA.- Eszenatokiaren ezaugarriak. Klausula hau bere horretan mantentzen da. 2020 an berrikuntza batzuk izan ditu, ezaugarriak aldatu gabe (egurrak eta toldoa berritzea) eta lau udalen artean ordaindu ziren, hitzarmen honen hirugarren klausulan jasotako proportzioan.

HIRUGARRENA.- Jabetza. Klausula hau bere horretan mantentzen da.

Eszenatokiaren jabetza lau Udalena izango da "pro indiviso" moduan, behin bakoitzari dagokion ordainketa egindakoan.

Eszenatokiaren berrikuntzaren aurrekontua 23.982,23 eurotako izan zen, eta ordainketa udal bakoitzak modu honetan bideratu zuen, eta aurrerantzean ere honela egingo da:

- Koste osoaren %50 a Udal guztiek berdin ordaindu beharko lukete. Beste %50 a biztanleagoaren arabera (udal guztien biztanleriak %100 a osatzen badu, Udal bakoitzak dituen biztanleen proportzioan).

Kalkulu hau bera erabiliko da eszenatokiaren mantentzeak, ezbeharrak (lapurreta, puskatzea) ea... sorrarazitako gastu bereziak ordaintzeko orduan.

Bestalde, berdin banatuko da , inolako diru-sarrerarik sortzen badu edota diru-laguntzarik jasotzen bada.

LAUGARRENA.- Jasotzeko lekua. Idazkera berria :



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Asteasuko Udalaren esku geldituko da eszenatokiaren biltokia, berak baitu horretarako leku egokia.

BOSGARRENA.- Kudeaketa arautegia.

- A) Kudeaketaren ardura Asteasuko Udalak hartzen du
- B) Erabiltzaile bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu, eszenatokiaren gastu aruntetarako, Asteasuko Udalak ezik, kudeaketaren gain egiten delako.
- C) Erabilpena printzipioz, jabe diren herriek soilik eramango dute. Beste udalek eszenatokia eskatzen badute, jabe diren udaletako arduradun guztien onespena telefonoz lortu beharko luke kudeaketaren arduradunak, dagokion baldintzatan baimena emateko. Udala ez diren beste entitate batek eskatuko balu, beti bere herriko udalaren izenean egin beharko du eskaera idatziz.
- D) Muntaia eta desmuntaia honela egingo da : herri bakoitzak bere brigadako langile bat izendatuko du. Horrela 4 pertsonako talde bat osatuko da eta horiek izango dira lan horien arduradunak eta eszenatokia behar denero lau herri horietara joango dira.
- E) Jabe ez diren beste udalei eszenatokia uztea onesten bada, honako baldintzetan egingo da:
 - a. Erabiltze-tasa ordaindu beharko dute : 300 euro
 - b. Eszenatokiaren erabilpen egokia bermatzearren, 300 euroko fidantza jarri beharko dute, eraman aurretik.
 - c. Eszenatokiaren eskaera egiten dutenean arduradun bat izendatu beharko dute. Pertsona hori arduratuko da eszenatokia muntatu eta desmuntatzeaz eta modu egokian bueltatzeaz ere.
 - d. Eszenatokia ez bada modu egokian jasota bueltatzen, Asteasuko udalak fidantza erabiliko du, bere brigadak hura ondo jartzen pasatzen dituzten orduak estaltzeko.
- F) Urte amaieran eszenatokiaren erabilieragatik jasotzen diren tasen kopuruaren %25 a Asteasuko udalari emango zaio, kudeaketa lanen ordainketa gisa.
- G) Printzipioz herri bakoitzeko festa eta aste kulturalak errespetatu beharko lirateke bere erabilpenari dagokionez, honako hau izanik beren egutegia:
 - Aduna: Abuztuko Ama Birjinetako jaiak
 - Alkiza: Maria Birjinaren jaiak, irailaren hasiera
 - Asteasu: S. Pedrotako jaiak
 - Larraul: San Esteban eta San Bartolome jaiak

Aipatu data hauetaz gain beste eskaerarik balego, beti ere lehentasuna lehendabizi egindakoak izango luke bi eskaera batera suertatuko balira.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honetan adierazitako punturen bat ez betetzeak hitzarmen hau eten eta berrikusteko aukera emango du.

ZAZPIGARRENA.- Norbaitek hitzarmen honetatik kanpo gelditu nahi izanez gero, honen berri gutxienez ere hiru hilabeteko aurrerapenez eman beharko luke eta bere ekarpena eta eskubideak galduko lituzke inolako kalte-ordainik gabe.

Beste aldeek hitzarmen hau berrikusi beharko lukete.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honek, sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta lau parte hartzaileak behartuko ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen izaera administratiboa litzateke eta bere interpretazioa eta garapena Herri Administrazioen artean egiten diren Lankidetzaren Hitzarmenetako ordenamendu juridiko administratiboak arautuko du.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau interpretatzeko eta betetzeko garaian sor daitezkeen arazoak Administrazioarekiko Auzien esparruak ezagutu beharko eta erabaki beharko ditu.

Eta dokumentu honetako klausuletan dauden zehaztapenekin ados daudela erakusteko izenpetu egiten dute ale laukoiztuan izenburuan adieraziko leku eta egunean.

ADUNAKO UDALA
ALKATEA

ALKIZAKO UDALA
ALKATEA

ASTEASUKO UDALA
ALKATE ANDREA

LARRAULGO UDALA
ALKATE ANDREA

ZAZPIGARREN PUNTUA

Mozioak:

- **2021/08: Jaso nahiko genukeena eskaintzea**

"JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA"

Migrazioa ez da egoeraren araberrako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorrinek, asilo-eskatzaileek, Bidaidetik Gabeko Adingabe eta Gazte Atzeritarrek,



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

iragaitzazko migratzaileek edo zaugarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonen erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeke aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna. Migrazioari dagokienez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du, herrialderik aberatsenak migrazio fluxuak eta kultura aniztasuna modu egokian integratzen jakin izan dutenak dira.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamaturtako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako ereduak eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabearekin. Sintoma kezkarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitorpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migrazioarako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharrezan dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoaren asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabidearen parte gisa heltzea.

ABIAPUNTUAK. Migrazioarako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu.

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri euskal gizarteak defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharrezana. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharrezanean erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkunderari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

ZEHARKAKO AUKERAK. Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:

I. Bizikidetzaren. Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuia egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.

II. Giza Eskubiak. Oinarrizko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororen aurrean.

III. Zehakakotasuna. Euskal administrazioen sektore-politikan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna....) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.

IV. Kohesioa. Irnatasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarrizko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.

V. Hezkuntza. Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

VI. Tokiko esparrua. Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzaren hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehentasunezko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

VII. Berdintasuna. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzara eraikitzeko oinarritzko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politiketan eta gizarte babeseko politiketan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.

VIII. Hizkuntzak. Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarrizketa eta lankidetzara iraunkorreko mekanismoak ezarriz, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

IX. Lankidetzara. Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzara. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

KONPROMISO ZEHATZAK. Aurreko guztiaz, erabateko babesa ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapenera, dagozkien eskumen-esparruetan:

1. Erantzunkidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzara aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzara leialean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.

2. Irrotasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektorala lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.

3. Immigrazio erregularizatua. Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak Europan planteatzen dituen beharrezkoak.

4. Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, Europan, estatuan eta Euskadin.

5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarriz emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketen biktimengan.

6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzazko migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.

7. Bidaidetik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaidetik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGA). Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharrak, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatu, bidezko eta egokia eskaintzeko.

8. Esku-hartze humanitarioa. Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.

9. Prebentziozko esku-hartzea. Lankidetzaren proiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.

10. Bizikidetzaren kultura. Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuatuta.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 1 (Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 6 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga)

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- **2021/09: Euskararen nazioarteko eguna**

2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Euskara lanabes, aro berrirantz

Erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere, euskarak arnas berri

Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itxaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaugarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eranstean dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion toki hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikoak eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetzak publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar. Gai gara

argiro erakusten ari garelako, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapean errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak eman, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formaletakoa landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atsedean eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarritz eta eredugarritasuna erakutsiz.

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak...). Nekez bilatuko genuke esparru egokiagorik gazteengan iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoia aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitzen.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 1 (Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 6 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga)

Gauzak horrela, Udalbatzak



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

- **2021/10: Haurren aurkako sexu abusua prebenitzeko mundu eguna**

Haurren aurkako sexu abusua prebenitzeko mundu eguna dela-eta adierazpen instituzionala egiteko proposamena.

Adierazpen instituzionala

Kontuan hartuta gobernuek eta gizarte zibileko erakundeek zeregin garrantzitsua izan behar dutela haurren eta gazteen eskubideak sustatzeko eta errespetatzeko, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan berariaz adierazten den bezala (19. eta 34. artikulua), eta haurrak abusuen aurka babesten laguntzeko, WWSFk, 2000. urtean, Haurren aurkako Abusua Prebenitzeko Mundu Eguna abiarazi zuen, urtero azaroaren 19an ospatzeko Haurren Eskubideen Egunarekin (azaroaren 20a) sinergian. Mundu egun horren helburua da agerian jartzea abusuen arazoa, baita sexu indarkeria prebenitzeko programen zabalkundearen premiaz esku hartzeko beharra ere.

Fenomeno konplexua da, bereziki ezezaguna bere dimentsio errealean, eskuragarri dagoen informazioa oso urria baita, baina aztertu izan diren gizarte guztietan antzeman da indarkeria horren eragina. Gainera, haren prebalentzia gertaera ezagunetatik abiatuta egindako estatistiketan agertzen dena baino askoz ere handiagoa izan daitekeela uste da. Haurren Eskubideen Batzordearen arabera, haurren aurkako sexu abusua haur eta nerabeei tratu txar larriak emateko modu bat da, eta muga intimoak eta pertsonalak urratzea dakar. Ondorio sakonak eta iraunkorrak ditu pairatzen duen pertsonaren garapenean, eta haren duintasunari eragiten dio, biktimak pertsona ahulagoak bihurtuz desoreka mentalen eta biktimizazio berrien aurrean, besteak beste. Sexu abusuaren biktima izan diren hurrek gurasoekiko arbuioa adierazi ohi dute, enuresi arazoak izan ohi dituzte eta, adinean aurrera egin ahala, beren adinerako desegokia den sexu portaera izaten dute eta jokabide antisozialak izaten dituzte eskolan eta gizartean oro har. Sarritan, denboran irauten duen eta mailaz mailakoa den indarkeria izaten da (ez da noizbehinkako ekintza batera mugatzen, eta pixkanaka areagotzen doa). Indarkeria horren foku nagusia familia bera edo hurbileko harremaneko jendea izaten da (lagunak, familia zabala ...), eta biktimarioak erreferentziatzeko pertsonak izaten dira adingabearentzat. Indarkeria ekintzen jarraitutasunak eta gertutasunak erraztu egiten dute, indarkeria hori noiz hasten den kontuan hartuta, biktimak egoera normalizatu ahal izatea, ohiko harreman modu batekin nahasteraino.

Maiz kontrakoa pentsa badaiteke ere, askotan ez dago agresibitatearik, ezta indarkeria fisiko espliziturik ere; aitzitik, abusatzen duen pertsona helduak adingabeari eragiten dion sedukzioaren bidez gertatzen da, haurren edo nerabearen onarpena eta konplizitatea bilatuz. Pubertaro aurreko etapan, biktima ez da abusua jasaten ari denik ere ohartzen; nerabezaroan, berriz, erresistentzien aurrean, sedukzio mekanismoak beste agresibitate maila bateko estrategia batzuekin konbina daitezke, hala nola erruduntasunaren, mehatxuaren edo eraso fisikoaren ondoriozko menderatzearekin Hori dela eta, indarkeria mota hori oharkabean pasatzen da, eta, agerian geratzen denean, ikusarazteak eta salatzeak mesfidantza asko sortzen ditu, bai inguruko aldetik, bai biktimaren aldetik. Haurren aurkako sexu abusuko kasuak gero eta gehiago azaleratzen badira ere, indarkeria mota horrek tabu izaten jarraitzen du, eta pairatzen dutenek estigmatizatuta sentitzen jarraitzen dute.

Haurtzaroan abusu egoera bizitzearen ondorioei eta eraginari dagokienez, Save the Children gobernuz kanpoko erakundeak gai horri buruzko berariazko txosten batean ohartarazten du haur eta nerabeei egindako sexu abusua gertakari traumatiko bat dela, eta haren bizipena haurren indibidualtasunetik egiten dela. Horren ondorioz, egoera hori salatzen duten sintomak eta epe labur eta luzeko ondorioak asko alda daitezke biktima batetik bestera.

Maila judizialean, kasu gehienetan biktima urte asko igaro ondoren bakarrik ausartzen da salaketa jartzera, delitua preskribatuta dagoenean. Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren bidez, jarduteko irizpidea aldatuko da, delitu horien preskripzio denbora luzatzeko. Baina, zalantzarik gabe, haurren aurkako sexu abusuen inguruko arazo nagusia da (gainerakoen oinarri dena) oraindik ere oso errealitate isila dela. Abusu gehienak familia barrukoak edo gertuko jendeak eragindakoak dira (% 88,5, ANAR Fundazioak Espainian, 2008-2019 aldian, haurtzaroan izandako sexu abusuen bilakaerari buruz egindako azterlanaren arabera), eta ezkutatu egiten dira urte askoan, isiltasun eta ezkutatze tradizio luzean, eta gero eta beharrezkoagoa da abusu horiek gure gizartearen agertoki politikoan eta publikoan lekua izatea.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, bost adingabetik batek sexu abusua jasaten du 17 urte bete baino lehen. Europan, AEBn eta Kanadan, haurren % 20k sexu abusua jasan ditu.

Euskadin, hainbat dokumentu egin dira arazoa dimentsionatzeko (zenbat pertsonari eragiten dion edo zer ondorio dituen), erantzuna ebaluatzeko (dauden baliabideak) eta erantzun hori hobetzeko orientabideak identifikatzeko. Hala, Eusko Jaurlaritzako Haurren Behatokiak 2019an egindako txostena, "Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoa, erronkak eta orientabideak", dimentsio anitzeko ikuspegi parte-hartzaitik egin (34 erakunde publiko eta pribatu). Une honetan, Haur eta nerabeekiko indarkeriaren aurkako Euskal Estrategia prestatzen ari dira. Horretarako, prozesu parte-hartzaile eta kontrastatu bat egin da 25 erakunde publikorekin eta hirugarren sektoreko



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

9 erakunderekin, bai eta hiru euskal hiriburuetakoko haurren eta nerabeen partaidetza-kontseiluen eta Arartekoaren haurren partaidetza-kontseiluaren parte hartzearekin ere.

Eta Eusko Legebiltzarrean, Giza Eskubideen Batzordearen barruan, martxan dago Euskadin haurren aurkako sexu abusuei aurre egiteko ponentzia, zeinaren helburua baita prebentziorako, detekzio goiztiarrerako eta biktimen babeserako elementuak identifikatzea eta, gainera, ez errepikatzen eta ordaina emateko bermeak eskaintzea ahalbidetuko duen azterlan bat egitea.

Kasu bakar bat bada ere, edo kasu bakar baten susmoa badago ere, funtsezkoa da gai hori agenda publikoan aztertzea, egiten ari den bezala.

Badakigu haurtzaroko sexu abusuen kasuen kopuruak askoz handiagoak direla, funtsezkoa da azterketak ikuspegi integral batetik egitea, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia duten haur eta nerabeen eskubideen ikuspegitik, horrela arazoaren garrantzia neurtu ahal izateko eta behar den presarekin jardun ahal izateko.

Haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuak hainbat dimentsio ditu, eta administrazioetako eragile eta organo ezberdinen esku-hartzea eta koordinazioa eskatzen du. Horrez gain, haurrak eta nerabeak dauden eta era horretako portaerak detektatu eta konpondu daitezkeen erakunde publiko edo zerbitzu guztien inplikazioa eskatzen du.

- (e)ko Udalak, arlo bakoitzean eskumena duten erakundeekin batera, ezinbestekotzat jotzen du detekzioa eta jakinarazpena sustatzea sexu abusuaren biktima diren haur eta nerabeei ematen zaien arreta hobetzeko. Horretarako, detekzio eta jakinarazpen goiztiarrerako protokoloak prestatu eta ezarriko ditu, adingabeekin eta familiekin harremanetan egon ohi diren zerbitzu eta profesionalentzat.
- (e)ko Udalak, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak bezala, adingabeak eskubideen subjektu titular gisa aitortzen ditu, baita babes handiena merezi duten subjektu gisa ere. Hau da, haurrak eta nerabeak beren eskubideetan oinarrituta zaintzeko eta babesteko planteamenduak eskatzen du biktimatzat hartzeari uztea, eta eskubideen titular diren aldetik haien giza duintasunaren eta osotasun fisiko eta psikologikoaren errespetuan eta sustapenean oinarritutako paradigma bat hartzea, NBERen HAURREN ESKUBIDEEN BATZORDEAK jasotakoaren arabera. 13. ohar orokorra. Haurrak inolako indarkeria motarik ez jasateko duen eskubidea (CRC/C/GC/13, 2011ko apirilaren 18koa). Esku-hartzearen erdigunean jartzea haurraren eta nerabearen interes gorena.
- (e)ko Udalak, erakunde eskudunekin batera, gizarte-sentsibilizazioko kanpaina egonkorrak diseinatu eta gauzatuko ditu, informazioa emateko,

gizartea kontzientziatzeko, eta sexu indarkeriako egoera horietan goiz esku hartzeko detekzio eta jakinarazpen goiztiarra sustatzeko. Adingabeen hurbileko pertsoneri (familiei) bereziki zuzendutako kanpainak, sexu indarkeriaren zantzuak identifikatzeko tresnak eskainiz. Horrela, pertsona horiek guztiek gizaratearen arazo larri hori identifikatu eta alerta jo ahal izango dute.

- (e)ko Udalak, prebentzioko eta hezkuntza afektibo-sexualeko programen esparruan, indarkeria horren detekzioa eta jakinarazpena sustatzeko jarduerak garatuko ditu, haurrei eta nerabeei zuzendutakoak, eta gaia guraso eskoletan sartuko du.
- (e)ko Udalak sustatuko du familiek kontzientzia hartzea komunikabideetan, bideojokoetan, Interneten eta abarretan indarkeriazko edukien eraginpean luzaro egoteak haur eta nerabeengan izan ditzakeen ondorioez.
- (e)ko Udalak azpimarratu du oso garrantzitsua dela gaur egun dauden baliabideak ezagutaraztea, egoera horiek identifikatzen dituztenek eta abusuak eta tratu txarrak jasaten ari diren biktimek eskura izan ditzaten dauden baliabideak, eta babestuta eta lagunduta senti daitezten. Horretarako, haur eta nerabeekiko indarkeriaren aurkako euskal estrategia hartuko da oinarritzat. Estrategia hori 25 erakunde publikorekin, hirugarren sektoreko 9 erakunderekin eta EAEko hiru hiriburuetako haurren eta nerabeen partaidetza-kontseiluekin eta Arartekoaren haurren partaidetza-kontseiluarekin batera egin eta kontrastatu da.
- (e)ko Udalak erakunde guztiei eskatu die haurren eta gazteen aurkako sexu indarkeria prebenitzeko eta haren zantzuak identifikatzeko dituzten eskumenen arabera inplikatzeko, helduen eta haurren arteko elkarreragina dagoen ingurune guztietan, indarkeria hori ahalik eta lasterren identifikatzeko neurriak hartu eta ondorengo kalteak mugatu ahal izateko. Horretarako, sistema bat hedatuko du, prestakuntza eta aholkularitza eskainiko dituena, eta haur eta nerabeen bizitza garatzen den esparruetan aritzen diren profesionalak indarkeria kasuak identifikatzeko gaitasun egokiak eta adingabeek dituzten zalantzak argitzeko behar besteko laguntza izatea bermatuko duena.
- (e)ko Udala erakunde eskudunekin koordinatuko da, gai hori hezkuntza sistemaren barruko ikasketa programetan txertatzeko, haur eta gazteen aurkako abusia detektatzeko tresnak izan ditzaten. Halaber, osasun arloko langileekin koordinatuko da, arreta berezia jarriz biktima diren haur eta nerabeei eta haien familiei laguntza eta arreta psikologikoa ematen dieten profesionalengan, protokoloetan eta esku hartzeko estrategietan gaitzeko.
- (e)ko Udalak arreta handiz jarraituko du "Barnahus" izeneko proiektu pilotua, sexu abusuen biktima diren adingabeei arreta integrala ematekoa.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Proiektu hori Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean iritsiko da Euskadira, Save The Childrenen lankidetzarekin, euskal errealitatera egokitzeko lehen urrats gisa, eta gune berean bilduko ditu kasu horietan esku hartzen duten departamentu guztiak, judizialak zein soziosanitarioak.

- (e)ko Udalak lankidetzan eta koordinazioan jarraituko du Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta gaian eskumena duten gainerako erakundeekin, bai eta haurren aurkako sexu abusua eta tratu txarrak prebenitzen diharduten elkarteekin ere, ekimenak garatzeko eta beharrezko baliabideak bermatzeko, horien bitartez abusua prebenitu eta detektatzeko eta hurrek eta nerabeek beren eskubideak baliatu ahal izatea bermatuko duen arreta egokia eta kalitatezkoa eskaini ahal izateko, arretarako eta babeserako protokolo eta neurri eraginkor guztiak abian jarri.
- (e)ko Udalak aitortu eta balioetsi egiten du arazo larri hau desagerrarazteko inplikaturik dauden erakunde eta elkarte guztien ahalegina eta lana, eta haiei laguntzeko deia egiten du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 1 (Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 6 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga)

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

- **2021/11: Euskal presoek eskubideak errespetatu**

GIZA ESKUBIDEAK, ELKARBIZITZA, BAKEA

EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEAK ERRESPETATU

SALBUESPEN LEGEDIA INDARGABETU!

Gabon jaietako egun bereziak iritsi zaizkigu Aiztondo bailarara. Senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabekoak berriz ere ikusteko,

elkar besarkatzeko, herriko giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... egunak izan ohi dira. Era berean, herritik urrun daudenak eta gure artean izaterik ez dutenak gogoan izateko, eta beren familiei elkartasuna adierazteko egunak ere badira.

Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako udal ordezkariok, euskal presoek pairatzen duten salbuespenezko kartzela-politika gaitzesten dugu eta espainiar eta frantziar Estatuei presoek eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzatela exijitzen diegu.

Azken urtean bereziki, aurrera urrats batzuk eman dira eta positiboki baloratzen ditugu. Izan diren presoek hurbilketak, dudarik gabe, senideen zama arintzea ekarri du presoak bisitatzeko distantzia luzeak murriztean. Baina ez dezagun ahaztu oraindik 104 preso daudela Euskal Herritik kanpo, tartean Aiztondoko preso guztiak, eta ondorioz haien eta haien familien eskubideak urratzen jarraitzen dutela.

Ez dezagun ahaztu, ezta ere, euskal presoek % 94k bigarren graduan jarraitzen duela, eta 10 baino ez direla hirugarren graduan daudenak, egoera horretan 70 preso egon beharko lirakeenean, gainera horietatik 52k eskubidea dute jada baldintzapeko askatasunean egoteko. Preso horien % 90ek espetxe-baimenak izateko aukera izan beharko luke, horretarako zigorraren dagokien zatia beteta dutelako, baina ez zaie eskubide horiek aplikatzen.

Guzti horri, justiziaren jarrera atzerakoia batzen zaio. Espetxeetako Juntatik graduprogresioaren bat edo espetxe-baimenen bat lortzen denean, Auzitegi Nazionalak errekurritu, blokeatu eta geldiarazi egiten ditu erabaki horiek.

Honenbestez, Aiztondo bailarako udal ordezkariok, datorren abenduaren 31n arratsaldeko 19:00etan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik irten eta Villabonako Errebote plazan amaituko den manifestazio isila deitzea erabaki dugu.

Honakoak dira manifestazio honen bidez, kaleratu nahi ditugun oinarritzko eskaerak:

1 - Euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko kartzela neurriekin amaitzea eta legedia arrunta aplikatzea:

Beharrezkoa da presoek bidegabeko zigor erantsia ezartzen dieten neurriekin behin betirako amaitzea eta euskal presoek preso guztiek dituzten eskubide berberak aitortzea: Gradu progresioak, espetxe baimenak, baldintzapeko askatasunak etab.

2 - Gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea.

Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxe batean artatuak izateko eskubide osoa dute, hau espainiar legedian bertan jasota



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

dago. Beraz, eskubide hau errespetatzea eta larri gaixo dauden presoen berehalako kaleratzea exijitzen dugu.

3 - 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea.

Aiztondon, 2021eko abenduan

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Usandizaga)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 1 (Gómez)

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

ZORTZIGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Alkatea funtzioetan hitza hartu du. Brigadako errefortzu langileak bere lana amaitu ondoren, brigadan 3 langile geratu dira. Egoera hori ez da nahiko zerbitzu horren betebeharrak asetzeko; hala, otsailean 6 hilabeterako deialdia egingo da, besteak beste, herriko festetan lagundu ahal izateko.

Idazkariak hitza hartu du. Beti egin duen bezala, dagokion azterketa egingo du, eta bere txostena espedientean jasota utziko du.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:15 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2021eko abenduaren 22an.

Alkatea funtzioetan

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea